


herrera-bidebieta**Urtzulo berriak arazo**

aspaldidanik Herrera auzoan, San Luis Plazan bereziki, izugarriko uholdeak jasan ditugu. Euri zaparrada handi bat izaten zen bakoitzean San Luis Plaza urez beteta agertzen zen. Arazo larri honi aurre egiteko Donostiako Udalak urtzuloak jartzea erabaki zuen.

Arazoa da urtzulo hauek kotxe zein bizikleten gain izugarriko eragina

dutela. Zubipe tabernaren parean dagoen urtzuloak, espaloi inguruan erremate txarra duenez, kotxe bat baino gehiagoren gurpilak puskatu ditu. Erremateak altuera berdinean mantendu beharko lituzke bai urtzuloa eta espaloia ere. Baina errealitatean urtzuloa ez dago altuera berdinean eta hemen dago koska.

Bizikletaz ibiltzen direnek oraindik arazo larriagoa dute urtzuloa sare gisako zuloz beteta baitago, eta gurpila bertara heltzean freno antzekoa egiten dio txirrindari, pertsonentzat arriskutsua izan daitekeelarik.



Xabier

Bizikletaren arazoak konponbiderik ez badu ere, kotxeenak bai. Urtzuloak erremate egokia eduki ezker arazoa konponduta

legoke, eta ez luke inork zertan gurpila puskatzeko beldur egon behar.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnoa.:391267)

**Gurpilak lehertzeko arriskua.**

Gaiztarro edo Bidebieta I parkearen irteeran zulogune handi bat dago. Irteera bidearen erdi erdian dago eta N-1 errepidea hartzerakoan kotxeek erraz sar dezakete gurpila bertan. Jende asko ibiltzen da bide honetan, eta beraz konponketa bat behar luke zulo honek.

Asier Garbizu herrertar gazteari 18 hilabeteko gartzela zigorra jarri dio epaileak intsumiso izateagatik. Apirilaren 28an epaitu zuten gure auzokide gaztea soldaduzkari uko egiteagatik. Herrera zein Altzako gazte gehienak bere alde agertu dira eta paretetan auzitegira joateako deialdiak egin zituzten.

**Diru kutxa,
zerrailak
eta giltzak egiten
adituak**



Usandizaga, 16 behea
Miguel Imaz, 6 behea
DONOSTIA

☎ 27 18 14
☎ 29 16 81
Faxa: 28 43 84

**Z CALZADOS
ZABALO**

**Oinetakoak - Poltsak eta
osagaiak**

Larratxo 16, ☎ 39 14 15 DONOSTIA